

ORAIN ETA BETI aldaketaren protagonistak



Genero-berdintasunaren eta
nesken eta emakumeen ahalduntzearen alde

 **GARAPEN**
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK

5 GENERO-
BERDINTASUNA


 **sea**
Segurtasun | Edukazio | Dezentrazio

 **FUNDACIÓN EDELVIVES**

 **PROYDE**
45 45 45

 **PROYDE
PROEGA**

 **pro:ide**

 **PROCLADE
FUNDACIÓN**

 **proideba**

 **proclade
yanapay**

 **EDIFICANDO**
El Poder de las Mujeres

 **De La Sede**

 **sopro**
ORGANIZACIÓN
E INICIATIVA

**DBHko 1. eta 2. mailetako Hezkuntza Proiektua
2019-2020 ikasturtea**

ORAIN ETA BETI ALDAKETAREN PROTAGONISTAK. DBH-KO 1. ETA 2. MAILAK

(Berdintasuna eta ekitatea, gizartearen aldaketaren oinarriak)

- Zientziak (4h)
- Gaztelania/Euskara (5h)
- Gizarte Zientziak (3h)
- Ingelesa (3h)
- Gorputz Hezkuntza (2h)
- Musika (2h)
- Erljioa (1h)

20 ordu inguru

5. GIH. Genero-berdintasuna eta emakumeen eta neskatoen ahalduntzea lortzea

PROIEKTUAREN IZENBURUA: HORRELA IKUSTEN DUGU ORAIN!

Azken produktua: egunkari digital bat.l

Azken produktua (proiektuko gainerako jardueren aurrean zer ikuspegi izan behar dugun jakiteko lagungarria).

ERABAKIA

Egunkari digital bat egitea, hainbat atalekin.

Egunkariaren eskema. Atalak

- Lehen orrialdea. Izenburua eta irudia.
- Politika, gizarte eta kultura. Emakumeen rola antzinako gizarteetan. HISTORIA
- Politika nazionala
- Nazioarteko politika



DBH-KO 1. ETA 2. MAILETAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

2019-2020 IKASTURTEA

- Kultura
- Lan-arloa. Emakumearen rolari buruzko grafikoak
- Hezkuntza. Emakumeek hezkuntzan parte hartzeko duten aukera. MATEMATIKA, GEOGRAFIA (grafikoak).
- Kirolak. Emakumearen presentzia kirolean. GORPUTZ HEZKUNTZA
- Publizitatea. Iragarkien azterketa. GAZTELANIA/EUSKARA
- Komunikabideak. Zinema, serieak, musika. INGELESA ETA MUSIKA
- Erljioa - emakumearen rola.

OHARRAK: MOTIBAZIOA, TUTORETZA

Proiektua motibatzeko orduan, ikastetxe bakoitzak nahi duen moduan motiba dezala pentsatu da. Motibatzeko material gisa, "Generación 81" ekimenaren bideoa erabiltzea proposatzen dizuegu:

https://www.youtube.com/watch?v=NGbHi_wESJ0

Ikastetxe bakoitzak erabakiko du motibazioa nola egin: guztiok batera, saioa hasten duen irakasleak bere ikasgaian eginez edo ikastetxe bakoitzaren errealitatera hobekien egokitzen den moduan.

Ikastetxearen esku utziko dugu baita ere tutoretza-ordua emakumeak gaur egun betetzen duen funtzioa lantzeko erabiltzeko aukera, eta gurasoen gutunetarako atal bat ere utziko dugu, familiek proiektuan parte hartu dezaten, hala nahi badute.

Estandarrak desberdinak dira autonomia-erkidego bakoitzean. Proiektuak ikasgai bakoitzean modu orokorrean landuko diren estandarrak aurkezten ditu, eta ikastetxe bakoitzak autonomia-erkidego bakoitzeko legediaren arabera egokitu ditzake.

Horrela ikusten dugu orain!



HISTORIA

Politika, gizartea eta kultura. Emakumearen rola antzinako gizarteetan

- Politika nazionala
- Nazioarteko politika
- Kultura

1. SAIOA: SARRERA

Emakumea Antzinako Grezian

<https://www.youtube.com/watch?v=42yRCumifWc>

Pentsamendu-errutina: ikusi - pentsatu - nire buruari galdetu (banaka).

1. JARDUERA (TALDEKA)

<https://sites.google.com/site/lavidacotidianadelamujer/Home/la-mujer-en-atenas>

<https://sites.google.com/site/lavidacotidianadelamujer/la-mujer-espartana>

Bi esteka horietatik abiatuta eta 1-2-4 lankidetzeta-teknika aplikatuz, **erantzun honako galdera hauei:**

- Adierazi gaur egungo gizartean indarrean jarraitzen duten desorekak, eta zehaztu mezu horiek zer bidetatik iristen zaizkigun.
- Egin gizartean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko baliagarriak izan daitezkeen oinarrizko eta nahitaezko bost ideien zerrenda bat (giza eskubideenaren antzekoa).
- Egin bizikidetzarako dekalogo bat eskolarako: pertsona guztien arteko berdintasuna bermatu behar du (talde bakoitzaren ideia bat gutxienez jasoko dugu). Jarduera egin eta hurrengo astean, dekalogoaren kartel bat jar dezakezu ikasgelan).



2. SAIOA. ALEXANDRIAKO HIPATIA

SARRERAKO BIDEOA: <https://www.youtube.com/watch?v=oauxk40qYis>

2. JARDUERA. DRAW MY LIFE (EDO ANTZEKOA)

Lehenago ikusitako bideoaren antzeko beste bideo bat egingo dugu. Aplikazio bera erabil daiteke, edo eskuzko teknika bat, ikasleek egindako marrazkiekin. Adibidez:

<https://www.youtube.com/watch?v=vWscML4uEVA&t=73s>

Hurrengo estekan oinarrituta (narratzaile bideoaren gidoi moduan erabili), egin Draw my life bat edo antzeko gauza bat Alexandriako Hipatiari buruz.

<https://www.bosquedefantasias.com/recursos/biografias-cortas/hipatia-alejandria>

Havek izango dira taldeko rolak: gidoilarien taldea, narratzaileen taldea, marrazkilarien taldea eta bideoen eta audioen editoreen taldea.

3. SAIOA. ITXIERA

Bideoaren muntaia egiten amaituko dugu, eta eskolan ikusiko dugu.

Pentsamendu-errutina: "lehen pentsatzen nuen / orain pentsatzen dut" teknika, aurreko saioetan landutakoari buruz..

Metakognizioa gida-galderekin: zer ikasi dut saio hauetan, zer egin dezaket berdintasuna sustatzeko?



ZIENTZIAK (MATEMATIKA/GEOGRAFIA) (grafikoak)

- Lan-arloa. Emakumearen rolari buruzko grafikoak.
- Hezkuntza. Emakumeek hezkuntzan parte-hartzeko duten aukera.

Ikasleek grafiko bat prestatzea proposatzen dugu, emakumeek betetzen dituzten karguei buruzkoa. Inkesta-formatuan ere egin dezakete, kalera irtenez galderak egitera.

Atala motibatzeko dinamika

<https://www.youtube.com/watch?v=aqbr2HbhPuw>

- Polizia
- Suhiltzaileak
- Udala
- Hautetsiak (gobernatzaileak, zinegotziak)
- Osasun-zentroa
- Garraio publikoa (autobusak, trenak edo taxiak). Hezkuntza

GORPUTZ-HEZKUNTZA

Kirola. Emakumeen presentzia kirolean.

Estandarrak ez datoz bat proiektuarekin, eta, horregatik, proiektuan GH ez ebaluatzea pentsatu da.

1. SAIOA: EZAGUTZAK AKTIBATZEN

Ezagutza aktibatzeko dinamika

Hasteko, lehenengo dinamika bat proposatzen dugu: hiru kirol desberdinetako 3 kirolaritan pentsatu behar dute bakarka; bakoitzak post-it batean idatziko du pentsatutakoa. Behin guztiek idatzi ondoren, partekatu egingo dugu, eta zenbat gizon eta zenbat emakume idatzi dituzten aztertuko dugu.

Emakumeak amateur gisa edo profesional gisa kirolean duen parte-hartzeak izan duen hazkundeari buruz ere gogoeta egin dezakegu, baina gaur egun oraindik diskriminazio eta desoreka handia gertatzen dela adieraziko dugu, eta zuzendaritza-batzordeetan edo arbitro gisa emakumeak gutxietsi egiten direla.



DBH-KO 1. ETA 2. MAILETAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

2019-2020 IKASTURTEA

Adibideak aztertzen:

FIFA 100 dokumentua. Jokalari bizi onenekin 2004an egindako zerrenda honetan, 123 gizon ageri dira, eta 2 emakume baino ez: Michelle Akers eta Mia Hamm.

Eguneko egunkarietako edo telebistako kirolen atalari begiratuta, zenbat kirolari emakume eta zenbat kirolari gizon agertzen diren aztertzeko eskatuko diegu ikasleei.

Emakumeek kirolean izandako presentziari buruzko informazioa eman diezaiekegu baita ere:

- Charlotte Cooper (tenislaria): titulu olinpiar bat irabazi zuen lehenengo emakumea (Paris, 1900).
- Larissa Latynina (gimnasta): errekorra olinpiar dominetan.
- Birgit Fischer (kayakista): olinpiar domina gehien dituen bigarren emakumea.
- Edurne Pasaban (alpinista): K2 mendia eskalatu duen emakumeetako bat.
- Sarah Attar (atleta): 2012ko Olinpiar Jokoetan Saudi Arabia ordezkatu zuten bi emakumeetako bat.

Adibide gehiago dituzue Bizkaiko Foru Aldundiaren dokumentu honetan:

<http://www.bizkaia.eus/home2/archivos/DPTO4/Temas/Actitudes%20sexistas%20en%20el%20deporte%20%5BModo%20de%20compatibilidad%5D.pdf?hash=7206e8b5059d6ec237780f64975db1c2&idioma=CA>

2. SAIOA. ARTIKULUAK IDAZTEA

Kirolen atala idaztea, emakume kirolarien albisteekin.



GAZTELANIA/EUSKARA

PUBLIZITATEA. IRAGARKIEN AZTERKETA

1. Atala motibatzeko dinamika

- 1.1. Zatitu ikasleak 4-5 pertsonaz osatutako taldeetan.
- 1.2. Ikusi bideo hau: https://www.youtube.com/watch?v=-LMA_7Nkloo
- 1.3. Sortu elkarrizketa taldeetan. Talde bakoitzak bideoan deigarrien gertatu zaiona adieraziko du.

Taldeek adierazi beharko lituzketen kontzeptu nagusiak:

- Diskriminazioa
 - Estereotipoak edo genero-rolak
 - Matxismoa, mikromatxismoak...
 - Indarkeria sustatzen duten jokabideak, elkartasunik adierazten ez dutenak eta elkartasunean oinarritutako gizarte baten eraikuntza bultzatzen ez dutenak.
- 1.4. Bideoaren azalpena: publizitatea gaur egun gizartean gertatzen denaren ispilua da. Gazteek gaur egun duten edo etorkizunean izango duten jokabidearekin lotutako erreferentziak eskura ditzakete. Publizitateak duen informazioa (telebistan, prentsan, sare sozialetan) gizakiaren funtza eta balioak eratzeko zutabeetako bat da. Gazteek ikusten dituzten rol horiek errepikatuko dituzte gero beren bizitzetan.

Horregatik, garrantzitsua da genero-estereotipo eta rol horiek apurtzen saiatzeko borroka egitea, gizarte bidezkoagoa eta ekitatiboagoa eraikitzeko eta gizonen nahiz emakumeen parte-hartzea parekatzeko.

1.5. Taldean lan egiteko proposamena publizitatearen atalerako:

- a) Talde bakoitzak publizitatearen adibide bat bilatuko du hainbat esparrutako egunkari digitaletan: kirolak, gizartea, kosmetika, politika (kanpaina politikoak).
- b) Talde bakoitzak elementu guztien azterketa egingo du.
- c) Talde bakoitzak azterketaren emaitzak adieraziko ditu.
- d) Aurkitutako elementuak post-it batzuetan jaso daitezke.
- e) Iragarkiak berregitea proposatzen dizuegu, honako ezaugarri hauek kontuan hartuz: sexistak ez izatea, aniztasun kulturala eta sexuala errespetatzea, etab.



INGELESA ETA MUSIKA

KOMUNIKABIDEAK. ZINEMA, SERIEAK, MUSIKA

MUSIKA:

Komunikazioa. MUSIKA

Motibazioa: <https://i.pinimg.com/236x/99/94/67/99946775c0173499b534109a299c23a2--ballerina-justin-bieber.jpg>

Ados zaude informazio horrekin?

Zure ustez, nola eragiten digu, edo zer adibide aurkitzen dituzu entzuten duzun musikan?

Pentsatu duzu inoiz zer bidaltzen dugun bihotzera entzuten dugun musikaren bitartez?

SAIOAK

SAIOAK

1

- Motibazioa: honako bideo hau ikusi, gaur egungo abestiek jasotzen duten matxismoaz jabetzeko: "Ni malas, ni vuestras".

<https://www.youtube.com/watch?v=uhE8dV0KjbE>

(4 min)

- Ikerketa: binaka jarrita, hautatu ideia matxistak jasotzen dituen abesti bat.
- Gogoeta: gaiari buruzko gogoeta egin, egunkarian jartzeko.

2

- Berridatzi abestiaren testua, prosodia erritmikoa zainduz, eta bihurtu kantu ez-sexista. Ondoren, musika-oinarriarekin grabatu karaoke batean.
- Pasatu ordenagailura atal honetako testua.



DBH-KO 1. ETA 2. MAILETAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

2019-2020 IKASTURTEA

INGELESA:

1. EGUNA:

- **Motibazioa:** ikusi Disneyko matxismoari eta sexismoari buruzko bideoa, haurren zineman ere matxismoaren adibide bat ikusteko.

<https://www.youtube.com/watch?v=d0smB63Xrp8> (14 min)

- Debatea, ikasgelan ikusitako adibideei buruz. Lehenik, taldeka, eta gero guztiok elkarrekin.

2. EGUNA:

- Aukeratu haurrentzako bi film, bata sexista dena eta bestea ez dena, eta egin gogoeta biak konparatuz. Binaka eta ingelesez, jakina.

3. EGUNA:

- Gogoetaren ondorioak adierazi behar dituzte ikaskideen aurrean.

4. EGUNA:

- Ikasitakoaren metakognizioa.
- Pasatu ordenagailura atal honetako testua..



ERLIJIOA

SAIOA: ZEIN DA NIRE ZEREGINA?

Gaur egun emakumeak Elizan zer funtzio betetzen duen ondo ezagutzeko, interesgarria izango da Elizan eta mundu osoko katolizismoan beren tokia aldatzeko urratsak ematen ari diren emakumeei aditzea.

Ezin dugu jakin zer garen lehen zer izan ginen ez badakigu; beraz, hona hemen gaur egungo emakume fededunarentzako bi kontsigna: Biblia esku batean eta egunkaria bestean; ebanjelioa eta gaurko gaiak, bizitza fededunaren begietatik irakurtzeko modu bera baita.

<https://www.youtube.com/watch?v=oS3PwNkOsJ0> dokumental honetan, Elizako emakumeen lekukotasun zuzenak jasotzen dira. Informazioa lortzeko bide bat izan daiteke, azken lana egin aurretik.

<http://es.catholic.net/op/articulos/52571/cat/245/la-mujer-en-la-iglesia.html#modal>

Goiko artikulua horretan, besteak beste, Frantzisko Aita Santuaren iritzia agertzen da, eta emakumeari eta Elizari buruzko gogoetari forma emateko gonbita egiten digu.

Emakumearen presentziari buruzko Bibliako pasarteak

- a) Emakumearen eta gizonaren arteko berdintasuna sorreratik dator: 1Ko, 11, 11-12
- b) Emakume batzuek Jesusi jarraitzen diote (ikasleak?): Mt 27, 55-56; Mk 15, 40-41; Lk 23, 49; Lk 8, 2-3
- c) Emakumeak, piztueraren lehenengo lekukoak (kristautasunaren fundatzaileak?): Mt 28, 1-10; Mk 16, 9-11; Jn 20, 11-18
- d) Lehenengo elkarteetan zenbait ministerio (zerbitzu) bete zituzten emakumeak: Eg 1, 14; 18, 2; 21, 9; Erm 16, 1-4. 12-15; 1Ko 16, 19; 2Tm 4, 19, 1P 3, 1-4

ORDUBETEKO 2 SAIO

1. saioa: ikusi dokumentala, irakurri eta proposatutako artikulua. Bibliako aipuetan oinarrituta, egin kristautasunaren hasierako garaietako emakumeen izenen zerrenda bat. Halaber, proposatutako gainerako iturrietan aurkitu dituzten edo ikasleek ezagutzen dituzten beste batzuk ere ager daitezke.

DBHko 1. mailako estandarrari dagokio jarduera hau.

2. saioa: azken produktua Frantzisko Aita Santuari zuzendutako eskaera-idatzi bat izan daiteke, eta Vatikanora zuzenduko dugu (*Aita Santuari mezu pertsonal bat helarazteko modua*



DBH-KO 1. ETA 2. MAILETAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

2019-2020 IKASTURTEA

paperean gutun bat idaztea da. Aita Santuak ez du posta elektronikoa publikorik, eta ez die tuitei erantzuten edo ez die mezu pertsonalik idazten Twitterren dituen milioika jarraitzaileei, ulergarria denez. Ez dio axola zer hizkuntzatan idatzita dagoen gutuna. Helbide honetara bidali behar da: Sua Santità Francesco, 00120 Città del Vaticano. Vatikanotik hurbil baldin bazaude edo bisitatu egin behar baduzu, errazagoa da oraindik. Vatikanoko gutunontzi horietan utz daiteke gutuna, San Pedro plazatik gertu, ohar gehigarriak gabe.) Eskaera-idatziak izenburu hau izango du: "Zein da nire zeregina?"; eta gaur egungo Elizan emakumeak izan behar duen tokia aldarrikatu behar du. Historia ezagutzen duela eta biblikoki dokumentatuta dagoela islatu behar du, eta ziklo, etapa, ikastetxe edo auzoko guztiek sina dezakete.

Jarduera hau DBHko 2. mailarako zehaztutako estandarri dagokio.

EBALUAZIOA

- Errubrika
- Jokabideen behaketa

Proposamena errubrikekin ebaluatzea da.

Talde-lana ebaluatuko duen errubrika bat proposatzen dugu. Irekita utziko dugu, ikastetxe bakoitzak erabaki dezan edukiak beste errubrika batzuekin ebaluatu nahi dituen.

PUNTUAZIOA

Ikaskuntza baxua

5-9

Erdi-mailako ikaskuntza

10-14

Ikaskuntza ona

15-19

Ikaskuntza bikaina

20



DBH-KO 1. ETA 2. MAILETAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

2019-2020 IKASTURTEA

TALDE-LANAREN EBALUAZIOAREN ERRUBRIKA	4 puntu. Ikaskuntza bikaina	3 puntu. Ikaskuntza ona	2 puntu. Erdi-mailako ikaskuntza	Puntu 1. Ikaskuntza baxua
IKASKIDEEKIN LAN EGITEA	Gehienetan entzuten du, partekatzen du besteekin eta balioesten du haien ahalegina. Kide guztien batasunari eusten saiatzen da.	Askotan entzuten du, partekatzen du besteekin eta balioesten du haien ahalegina. Ez du arazorik sortzen taldean.	Batzuetan entzuten du, partekatzen du besteekin eta balioesten du haien ahalegina, baina batzuetan ez da taldekide ona.	Gutxitan entzuten du, partekatzen du besteekin eta balioesten du haien ahalegina. Askotan ez da taldekide ona.
JARRERA	Beti du lanarekiko jarrera positiboa.	Ia beti du lanarekiko jarrera positiboa..	Batzuetan du lanarekiko jarrera positiboa.	Lanarekiko jarrera negatiboa du.
ARAZOEN EBAZPENA	Arazoei irtenbideak bilatzen dizkie, eta besteei iradokitzen dizkie.	Beste batzuk iradokitako irtenbideak biribiltzen ditu.	Ez du irtenbiderik iradokitzen, baina prest dago beste batzuek proposatutako irtenbideak lantzeko.	Ez da arazoei irtenbideak bilatzen saiatzen eta ez die besteei laguntzen arazoak konpontzen. Besteen esku uzten du lan hori.
HARTUTAKO ERABAKIEN JARRAIPENA	Beti errespetatzen ditu taldeak hartutako erabakiak eta ekartzen ditu eskatutako materialak.	Gehienetan errespetatzen ditu taldeak hartutako erabakiak eta ekartzen ditu eskatutako materialak.	Batzuetan ez ditu errespetatzen taldeak hartutako erabakiak, baina ia beti ekartzen ditu eskatutako materialak.	Oso gutxitan errespetatzen ditu taldeak hartutako erabakiak eta ekartzen ditu eskatutako materialak.
ARAZOEN EBAZPENA	Lan-giroa lantaldeetan eta jarduera komunetan egokia izan da. Informazio-truke handia gertatu da taldean.	Beste batzuk iradokitako irtenbideak biribiltzen ditu.	Ez du irtenbiderik iradokitzen, baina prest dago beste batzuek proposatutako irtenbideak lantzeko.	Ez da arazoei irtenbideak bilatzen saiatzen eta ez die besteei laguntzen arazoak konpontzen. Besteen esku uzten du lan hori.

